

Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)

EDU ZELAIETA*

AITZIN-SOLASA

Dialektologiako lan honen helburu nagusia da Bortzerrietako¹ hizkuntza ezaugarrien geografia hedaduraren berri zehatza izatea. Honela, Bortzerrietako nortasun linguistikoa zenbaterainokoa den ikusten ahalko dugu: barreneko batasunik ote dagoen, ezaugarri banatzailek ote dagoen eta ezaugarri eksklusiborik ote dagoen.

Bortzerrietako herriei buruzko zenbait datu orokor eman eta ondoan, aztertu beharreko eremuaren inguruko sarrera soziolinguistikoa egingen dugu. Izan ere, argi dago soziolinguistika egungo dialektologian gero eta garrantzi handiagoa erdiesten ari dela. Atal berean, Bortzerrietako euskararen gaineko

* Euskal Filologian lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. Ikerketa-lan hau bi artikulutan plazaratuko da aldizkari honetan. Hau duzue lehenbizikoa. Halaber, Bortzerrietako bi artikuluko *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* izeneko tesi-proiektuaren barrenean kokatzen dira. Eusko Jaurlaritzak finantzaturako egitasmoa da honako hau, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikertzaileak prestatzeko programaren bidez. Bertze alde, eskerrak eman nahi dizkiegu lanari oharrrak egin dizkieten hurrengo lagunei: Gotzon Aurrekoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri Zaratiegi, Mikel Taberna, Koldo Zuazo, eta bereziki, tesiaren zuzendaria dugun Iñaki Caminori. Mapa Nagore Garcia de Madinabeitiaren laguntzaz egina da.

¹ Bortzerriak/Bortziriak bikotearen aitzinean, Euskaltzaindiak 1990ean argitaratutako Nafarroako Herri Izendegian, Bortziriak onartu zuen. Hori da izen ofiziala. Xafla, errotulo eta paper ofizialetan hala agertzen da eta, urte hauetan, forma horrek bere bidea egin du. Gazteek ez dute bertzerik erabiltzen ezta ezagutzen ere. Kontua da jende helduak eta zaharrak gehiagotan erabiltzen duela Bortzerriak. Baina izen ofiziala bere bidea egingen ari da, eta ondorioz Bortziriak da barra-barra idatzi eta entzuten dena. Onomastika batzordeak orain dela bi urte pasatuxe berrikusi zuen Herri Izendegi guztia, eta bere erabakietan biak onartu zituen, hurrenkera honetan 1. Bortzerriak (-ak), 2. Bortziriak (-ak). Baina erabaki hau ez da batzordetik atera. Hortaz, izen ofiziala ez da aldatu. Azaldutako guztia dela eta, guk Bortzerriak erabiliko dugu lanean, jakinik ere bertzea dela ofiziala.

datu interesgarri batzuk ere jakinaraziko ditugu, bereziki herri bakoitzeko hizkuntzaren ezagutzari eta erabilerari dagokionez.

Ondotik, Bortzerrietako hizkerek euskal dialektologian izan duten lekua-
ren berri laburra ematera saiatuko gara, orain arteko dialektologialari nagusiek zer erran duten gure eremuko euskarari buruz jakiteko.

Hurrengo atala zabalena izanen da, zeren eta bertan Bortzerrietako euskararen ezaugarri nagusiak eta geografia hedadura aipatuko baititugu. Azken batean, Bortzerrietako euskararen gramatika bat eginen dugu, gramatika deskriptibo horretatik azterketa dialektologikora abiatzeko asmoz. Horretarako, eta izenburuak iradokitzen duenez, geografian barrena joanen gara berdintasunak eta ezberdintasunak non sortzen diren jabetzeko.

Ondorioetara iritsita, lehenbizian azaldu ditugun zenbait galderari erantzuna ematera saiatuko gara, lanean zeharreko datuek emandako informazioaren arabera. Eta tasun linguistikoko horien arabera ere, Bortzerrietako barreneko nahiz kanpoko muga dialektalik behinenak non kokatzen diren erabakitzen ahalko dugu.

Ikuspegi diakronikoa ere baliatuko dugu. Horretarako, Bortzerrietako eta inguruko XVIII. eta XIX. mendeetako testuen gaineko ezagutza filologikora jo dugu. Era honetan, azken bi mendeotan gertatu diren aldaketak nora begira gertatu diren ohartzeko moduan egonen gara. Testuok bibliografia orokorren erantodotik ageri dira; aparteko sailtxo bat osatzen dute.

Lanerako erabili ditugun ahozko datuak iturri askotarikoak dira. Beraz, eskerrak eman behar dizkiegu zorretan gelditu garen denei; batzuk ezagutze-rik izan ez badugu ere.

- Guk egin ditugun grabazio batzuk, bereziki, Berako osaba dugun **Jose Maria Zelaietarekin**. Osabarekin galdeka ere aritu gara hondarreko urteotan gure egoitza nagusia izan den **Ipar Haize** etxean, Berako Suspel Tiki auzoan.
- **Ttipi-Ttapa Telebistak** nahiz **Xorroxin Irratiak** guri utzitako hainbat elkarrizketa, saio eta bideo-zinta (adinekoei eginak, batez ere).
- Euskal Herriko Hizkuntza Atlaserako (EHHA) hautatu ziren herrien artean Etxalar dugu. Bertako galdetegia 80. hamarkadaren bukaeran **Izaskun Etxebestek** egin zuen, Etxalarko apez **Pello Apezetxeak** bertako solasaren ordezkari fidelak ziren **Pakita Altzuguren** eta **Jesus Danboriena** senar-emazteak aukeratuta. Grabazio hauek entzuteko, Euskaltzaindiak Bilbon duen Azkue Bibliotekara jo dugu. Bertan, soinu-
zko artxiboa aditzeko eskaera egin eta ondoan, ez dugu inolako trabarik izan. Berriemaile fidagarriak dira, hagitz. Biek gurasoak bertakoak ziztuzten.
- Bortzerrietako Euskara Mankomunitateak Bortzerrietako ahozko tradizioa biltzeko beka bat atera zuen 2001. urtean. Mankomunitateari eskaera egin ondotik, **Maite Lakarrek** eta **Nora Iriartek** bildutakoa erabiltzeko modua izan dugu. Zinetan, dialektologiarako langai bikaina: lekuko guziak tokian tokikoak dira, 60 urtetik goitikoak eta euren gurasoak ere berta-bertakoak dira/ziren.
- Azken urteotan Bortzerrietan egon garelarik, eremu eta modu naturalean, egoerarik onenean alegia, guk buruz apunte anitz barneratu ditugu.
- Euskararekin eta bertako kulturarekin lotura duten lagun batzuk aukeratu ditugu, guk prestatutako galdetegiak erantzuteko. Galdetegi

hauek hizkuntzaren maila guziak hartzen dituzte, baina era zuzenean galdetzen denez gero, morfologiak, sintaxiak nahiz lexikoak pisu handiagoa dute fonetika-fonologiaren alorrak baino. Gehienak gazte xamarrak dira, 70. hamarkadan jaiok, grabazioetako jendea ez bezala, gure galde-modu zehatzak hobeki konprenituko zituztelakoan. Nolanahi ere, gazte hauek ez dira Bortzerrietako 25-35 urte bitartekoen ordezkari, bertako euskararen gaineko kezka eta ezagutza handiagoak dituzten neurrian. Erran nahi baita hautetatik batzuk filologoak direla, bertze batzuk Euskararen Mankomunitatekoak eta bertze batzuk euskara edo kultur taldeetakoak. Hona hemen arestiko lagunon zerrenda: ARANTZA: **Nerea Altzuri** (gurasoak aranztarrak), **Ana Telletxea** (sortzez beratarrak, familia aranztarra) BERA: **Jon Abril** (aita beratarrak, ama lesakarra), **Patxi Iñigo**² (sortzez Iturengoak, aspalditik Berako apezak), **Iñaki Iratzoki** (aita beratarrak, ama sunbildarra) ETXALAR: **Pello Apezetxea**³ (sortzez goizuetarrak, aspalditik Etxalarko apezak), **Patxiku Irisarri** (gurasoak etxalarkoak) IGANTZI: **Patri Arburua** (gurasoak igantziarrak) LESAKA: **Aintzane Erkizia** (egun Gasteizen bizi da, aita lesakarra, ama beratarrak)

BORTZERRIAK HERRIZ HERRI: SARRERA SOZIOLOGIA

Bortzerriak izeneko eskualdea osatzen duten herriak hauek dira:

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka. Bera eta Lesaka dira herririk handienak eta industrializatuenak. Izan ere, Bortzerrietako industrialde hau Nafarroako Iparraldeko industrialderik handiena da.

Demografiari gagozkiorik, hona hemen zenbaki argigarri batzuk herri bakoitzak zer-nolako bilakaera izan duen berri ematen digutenak (Lurra Kultur Elkarteak emanak):

HERRIA	1960	1981	1991	2000
Arantza	1046 bizilagun	723 bizilagun	730 bizilagun	655 bizilagun
Bera	2600 bizilagun	3454 bizilagun	3471 bizilagun	3490 bizilagun
Etxalar	1109 bizilagun	835 bizilagun	844 bizilagun	789 bizilagun
Igantzi	618 bizilagun	607 bizilagun	579 bizilagun	588 bizilagun
Lesaka	2294 bizilagun	2943 bizilagun	2687 bizilagun	2681 bizilagun

Agerian utzi dugunez, aldaketa nabarmenak hirurogeiko eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadetan gertatu ziren, eremua industrializatzearekin batera. Lehenago, Bera eta Lesaka lehian ari baziren ere, zeinek eskualdeko buru izatea erdietsiko, gaur egunean, datuok erakusten dutenaren arabera, Bera na-

² Egia erran, Patxik, Berako solasaz gain, Bortzerrietako eta Malerrekako informazio aberatsa eman digu.

³ Pellok ere inguruotako informazio aberatsa eman digu. Irizar zendu berriaren laguntzailea izana.

gusiago ageri zaigu. Honen faktore inportante bat izan liteke Lesakako fabrikak ez duela hasierako garrantzi bera. Bertze aldetik, pentsatzekoa da bertze hiru herriek galdu dituzten bizilagunetako batzuk Berara eta Lesakara joanak direla.

Bidasoa ibaiak gurutzatzen du eskualdea, Bera eta Etxalar alde batera, eta Arantza, Igantzi eta Lesaka bertze aldera uzten dituelarik. Era berean, Bera eta Etxalar dira Ipar Euskal Herriko herriein muga egiten dutenak. Hain zuzen ere, muga dela eta, argi dago bi aldeen arteko lokarria hizkuntza (eta oro har, kultura) izan dela. Dena den, ez du iduri egungo harremana sasoi iragan batekoa den. Eta hizkuntzari dagokionez ere, mugaren bi alderdien arteko alde gero eta handiagoa dela iduri du, muga inguruko baserritarren arteko harremana hobeki gorde bada ere. Dena den, ikus dezagun banan-banan herri bakoitzak zein bertze herriekin egiten duen muga:

- **Arantzak** Igantzirekin, Goizuetarekin, Zubietarekin, Iturenekin eta Sunbillarekin.
- **Berak** Lesakarekin, Etxalarrekin, Sararekin, Urruñarekin, Biriaturekin eta Irunekin.
- **Etxalarrek** Berarekin, Lesakarekin, Igantzirekin, Sararekin, Azpilkueta-rekin, Lekarozekin eta Oieregirekin.
- **Igantzik** Arantzarekin, Lesakarekin eta Etxalarrekin.
- **Lesakak** Berarekin, Oiartzunekin, Goizuetarekin, Arantzarekin, Igantzirekin eta Etxalarrekin.



Bortzerriak eta inguruko herriak

Honenbertzez, Gipuzkoarekin, Lapurdirekin, Nafarroarekin (Baztanekin, Bertizaranarekin, Malerrekarekin eta Goizuetarekin) muga egiten dute Bortzerrietako herriek. Geolinguistikoki, aski kokapen berezia delakoan gaudete. Hala ere, badira herri batzuk Bortzerrietako bertze herri batzuekin bakarrik muga egiten dutenak (Igantzi), bertze batzuek Gipuzkoarekin nahiz Lapurdirekin muga egiten duten bitartean (Bera). Pentsatzekoa da honen arabera (ez)berdintasunak suertatuko direla geografian barrena.

Bortzerrietan eta inguruan urte osoan egiten diren azokarik garrantzitsuenak Lesakan, Donezteben eta Elizondon izaten dira. Baserritar (bakan) batzuk Ipar Euskal Herriko azoka batzuetara ere joaten dira, batez ere, Donibane-Lohizunera eta Azkainera. Honelako ferietan Baztan-Bidasoa guziko jendea bildu ohi da, beren arteko harremanak sendotzen direlarik.

Euskararen ezagutzari dagokionez, Pedro Irizarrek bere lanean emandako datuen arabera (1981-I: 195):

HERRIA	BIZILAGUNAK	EUSKALDUNAK
Arantza	801	801
Bera	2711	1760
Etxalar	896	810
Igantzi	658	652 ⁴
Lesaka	2689	2170

Oraintsuago (1996) egin diren errolden bitartez, Bortzerrietako Euskararen Mankomunitateak bertze datu batzuk atera ditu argitara, baina egoera antzekoa dela iduri du:

HERRIA	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
Arantza	% 99	% 0,4	% 0,6
Bera	% 66,7	% 12,7	% 20,6
Etxalar	% 90	% 2,9	% 7,1
Igantzi	% 92,5	% 2,2	% 5,3
Lesaka	% 78,8	% 8,4	% 12,8

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, erran beharra da Arantzaren ia ezagutzaren mailaren parean dagoela. Arantzako euskararen egoeraren oihartzuna Bortzerrietan eta inguruko herrietan barrena zabaldu da. 1999an, *Euskararen egoera. Baztanen, Bortzerrietan eta Malerrekan* izeneko txosten bat atera zen, eta bertan erraten da hiru eskualdeetako herrien arteko ezberdintasunak aipatzerakoan Arantza salbuespena dela (*Euskararen egoera*: 7.or.):

Arantza denok jarraitu behar dugun eredia da eta herri hau mitifikaturik agertzen dela erraten ahal dugu.

⁴ Berak hala dio *saben vascuence todos excepto seis personas, que no son naturales de Yanci*.

Pedro Irizarrek ere zerbait erraten digu Lesakako euskararen erabileraz (1981-I: 195):

En los caseríos todos prácticamente saben y hablan el vascuence. En el núcleo de la población, los de más de 20 años, la mayoría sabe vascuence, de ellos unos hablan siempre en esta lengua; otros a veces, y algunos, siempre en castellano. Los de menos de 20 años, hablan la mayoría profusamente en castellano, en especial los sirvientes.

Gaurko datuak eskuan hartuz eta honen aldean paratuz, egoera zertxobait aldatu dela erran liteke. Izan ere, erdaldun gehien dituen adin taldea ez da gazteena edota haurrena, helduena (30-64 urte bitartean) baizik. Hain zuzen ere, orduan 20 urtetik beheitikoak zirenak erdaraz nagusiki solastatzen ziren, egun *helduen* artean daudenak dira, erdaldunenak alegia. Haur eta gazte ikasle gehienak euskaraz (B edo D ereduan) ari dira ikasten, eta gainera, anitzen etxeetan euskaraz ere mintzatzen da.

Jose Maria Sánchez Carrionek herriz herriko euskararen gaineko datu baliagarriak ematen dizkigu (1972: 108-114):

...en Vera hay dos hábitats totalmente distintos: la población y los caseríos. En la población quedan oriundos, que hablan vasco tan sólo un 15 o un 20 por ciento en todos los niveles (hay familias totalmente vascófonas)⁵. [...] En Lesaca el vascuence es todavía lengua usual. El joven generalmente es bilingüe, habla indistintamente vasco y castellano. [...] Las poblaciones más cerradamente euskaldunes son Yanci y Aranaz. [...] Aranaz es, en sentido absoluto, una de las poblaciones de más vitalidad en toda Navarra. [...] Echalar es población de predominio vascófono, menos 6 familias erdaldunes y 15 o 20 que no lo hablan.

Beraz, erran genezake zenbatez eta herri handiagoa izan, orduan eta erdaldunagoa dela. Honetan, Bera herria dugu handiena/erdaldunena, eta Igantzi nahiz Arantza ttikienak/euskaldunenak. Honen arabera ere, Etxalar eta Lesaka aski euskaldun ageri zaizkigu. Beratar anitzen ahotan ibilki den lekukotasuna da oraintsu arte karrikan edo plazan hagitz euskara guti aditu izan dela, nahiz eta euskaraz ederki jakin. Halarik ere, inguruko auzoetako eta baserrietako jendea ia beti euskaraz mintzatu da. Tamalez, Nafarroan (eta ez Nafarroan bakarrik) honelako kasuak ez dira batere arrotzak. Baztan-Bidasoako herri buruetan⁶ (Beran, Donezteben eta Elizondon) egoera murrugoa ikusten da gainerako herrietan baino. Edonola delarik ere, euskararen erabilerak goiti egin du gazteen artean.

Bertze alde batetik, Irun ondo-ondoan dagoela gogoan hartu behar dugu. Oraindik ere oroitzen gara gure amatxi *ziudadera* edo *kapitalera* joaten zen sasoiak. Beretzat Irun zen hiria. Dialektologian aritzen denak jakin badauki horrelakoetan erosketak baino zerbait gehiago eramaten ohi dela norbera-

⁵ Orain dela 45-50 urte gure aitatxi (beratarra) eta amatxi (igantziarra) karrikan bizi ziren eta euskara zen etxekoen hizkuntza nagusia, gure aitarena eta osaba-izebena alegia.

⁶ Doneztebeko egoera da denetan okerrena, Elizondon erdara nagusitzen bada ere, eta Bera da hiruerdun euskaldunena. Txepetxek ere honelako iritzia ageri du bere lanean (1972: 188): *la irradiación de Vera ha sido muy pequeña. Santesteban y Elizondo ejercen sin embargo una importancia considerable.*

ren sorterrira. Hona hemen Koldo Zuazok Donostiako eta Irungo eskualdeez erraten duena (1997: 420):

Gune autonomo samarra izan da eta da Irun; erabat Donostiari begira eta erabat Donostiaren mende egon ez dena. Irunen beraren inguruan ibili dira eta dabilta Hondarribia, Bortzerriak eta mugatik gertuko herri lapurtarrak ere hein batean eta, ostera, Donostiaren inguruan ibili dira eta dabilta Errenteria, Lezo eta Oiartzun.

Gaur den egunean, adibidez, Bortzerritarrak Irunen dagoen *Bidasoaldeko Ospitalera* joaten dira. Orobat, espezialista gehienak ere bertan izaten dituzte, eta ez Iruñean. Malerrekako nahiz Baztango bizilagunak, ordea, Iruñera joaten dira. Ildo beretik, unibertsitate ikasketak egiteko Bortzerrietako jendeak gehiago jotzen du Donostia aldera Iruñera baino. Izan ere, Donostia autoz ordu erdi batera dago, eta Iruñera joateko (Belateko tunel berria itxita ez dagoelarik) ordu bat inguru behar da. Erosketarako, zinemarako, aisialdirako eta abarrerako Irunera joaten dira. Bortzerritarrak Nafarroako hiriburura administrazio aferak direla eta joaten dira.

Garai batean, Bortzerriak (Baztan-Bidasoa osoki, Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaide Nafarroan; Gipuzkoan, Pasaiatik Irun-Hondarribiraino) Baionako Elizbarrutiaren barrenean zeuden. Horrek iduri du iparralderagoko hizkeren isuria (are) nabarmenagoa izanen zuela. Egoera horrek iraun zuen harik eta Felipe II.a erregeak 1567an Bortzerriak Iruñeko Gotzaindegiari lotu zizkion arte.

Euskararen mendez mendeko bilakaera geldo samarra arrunt bizkortu dute irakaskuntzak eta hedabideek. Euskara batua da nagusiki irakaskuntzan eta hedabideetan zabaldu dena eta bere izenean aukera jakin batzuei ematen ohi zaie lehentasuna, bertze batzuei atek hertsia zaizkien bitartean. Bortzerrietan ez dira guti euskara batua ereduzkotzat hartzen dutenak. Hauek ez dira ohartzen estandarren zeregina hagitz bertzelakoa dela, nazio mailakoa dela alegia. Eskualdeari dagokionez, gu hemen aztertzen ari garenari dagokionez, Bortzerritarrek ezin hobea dute beren *uskara*.

Euskara batuaren eta bertakoaren artean badago bertze hizkuntza eredu bat bien bitarteko zubi-lanak egiten dituen: bertako euskara estandarizatu, idatzia nahiz mintzatua. Eredu hau ondoko euskal komunikabideek lantzen dute:

- Tipi-Ttapa Aldizkaria (Baztan-Bidasoa osorik, Basaburu Ttikia, Sara Senpere eta Azkaine).
- Tipi-Ttapa Tebista (Bortzerriak, Sunbilla eta Malerreka)
- Xorroxin Irratia (Baztan-Bidasoa osorik).

Bortzerriak aspaldi samarretik eremu industrializatu da, nekazaritza giroa arrunt galdu ez duena. Bortzerrietan bizilagunen tipologia ñabarra da: baserritarrak, karrikakoak, inguruko industrialdean aritzen diren bertako nahiz kanpoko langileak, baita itsasoan aritu direnak ere⁷. Sasoi batean, nekazaritza esparrua euskararen gordeleku izan bazen ere, gaur den egunean, bertako kultur elkarteei nahiz herri ekimenei esker euskararen gaineko

⁷ Gure aitaxi eta osaba zaharrena Ternua aldean ibili ziren bakailaotara. Beran arrantzaleak ez zizkion, patrioiak ere badaude. Honek adierazten du hagitz lanbide ezaguna dela beratarren artean.

kontzientzia hagitzez handiagoa da. Afera honetan, bi kontu ikusten ditugu guk inguruko Malerrekatik, eta batez ere Baztandik, bereizgarri izaten ahal direnak: ondo-ondoan dagoen Gipuzkoan euskarak estatus hobea du (Nafarroan baino), ofiziala da, lan anitzetan eskatzen dute...; eta, bertzea, industrializazioak (hirurogeita hamarreko hamarkadan, nagusiki) langileak bildu beharra ekarri zuela zenbait eskubide aldarrikatzeko, eta ondorioz, gizarte kontuen inguruko kezka nahiz kontzientzia areagotu zela. Orobat, bertako euskararen ezagutzak zein erabilerak goiti egin dute. Ohi denez, umeak eta adinekoak dira euskaraz maizen aritzen direnak. Irakas-kuntzari dagokionez, euskarazko ereduak arras gailentzen dira, denbora batean kanpotik etorritakoen seme-alabak ere euskaldunduta. Beraz, alde honetatik behinik behin, baikorrak izateko moduko datuak ditugu. Alabaina, bertako euskalkiaz mintzaten direnen kopuruak ez du goiti egin, euskara batuak gero eta esparru gehiago hartuak baititu oro har, eta gazteen artean bereziki.

BORTZERRIETAKO HIZKERAREN ESTATUSA ORAIN ARTEKO EUSKAL DIALEKTOLOGIAN

XIX. mendean, Louis-Lucien Bonaparte printzea dugu, Euskal Dialektologian oinarri zientifikoak ezarri zituen lehenbizikoa. Ezaguna da Bibliaz eta katiximen itzulpenez baliatzen zela euskalkien berri jasotzeko. Haatik, Printzeak erabiltzen zituen metodoak eta irizpideak kolokan jarri izan dira behin baino gehiagotan; eta gainera, argi iduri du ordutik honat euskalkien eta euskararen beraren egoera arras aldatu dela (Zuazo 1997: 420):

Bonaparteren sailkapenari lotuegi ibili gatzaizkiola ere esan nahiko nuke, kontuan hartu gabe kasurik onenean ere 1850-1870 bitarteko egoerari dagokiola hura. Eta kasurik onenean diot, Bonaparteren sailkapenak ere badituelako bere hutsak eta bere akatsak. Baina hutsak eta akatsak alde batera utzita, euskararen egoera ere oso aldatuta dago ordutik hona.

Dena den, Printzearen lanaren balioa ageri-agerian gelditu da, eta orain-tsu arte berak egindako mapak eta sailkapenak oinarriztat hartu izan dira (Mitxelena 1976: 319):

...todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte.

Bonaparteri Nafarroako lurraldeak eman zion lanik handiena sailkapena egiteko, eta horren arrazoia begien bistakoa da, ordura arte ez baitzituen inortxok ere hizkera horiek aztertu edo azaldu. Hiru sailkapen baino gehiago egin behar izan zituen, eta laugarrena burutu ondotik ere, Nafarroakoarekin aski buruhauste izaten jarraitu zuen.

Berak idatzitako gutunetan ikusten ahal da bere iritzia goi-nafarrerari buruz (Urkixo 1908-10: 284):

Je suppose que le basque d'Aoiz après tout sera plutôt comme celui de Lizaso que comme celui d'Echarri Aranaz, qui pour moi n'est pas du navarrais, mais du guipuscoan de Navarre; tandis que Lizaso, Vera et Elizondo sont vraiment navarrais.

Bonapartek euskalki guzien artean goi-nafarrera hibridoentzat jotzen zuen (Urkixo 1908-10: 286-87):

Le haut-navarrais et le bas-navarrais se distinguent comme dialectes intermédiaires, ayant le premier une grammaire plutôt labourdine et un dictionnaire plutôt guipuscoan, tandis que le second présente une grammaire plutôt souletine avec un dictionnaire plutôt labourdin.

Bertze alde, Mitxelenak goi-nafarrera ekialdea/mendebaldea ardatzaren arabera hartzea egokiagoa zela erraten zuen, eta ez Bonapartek ezarrirako iparralde/hegoaldea (1972: 113):

Prince Bonaparte's "Southern" (and "Northern" for that matter), as applied to High Navarrese, is a misnomer. It would be more adequate, albeit not quite exact, to speak of Eastern vs. Western High-Navarrese.

Nafarroako Ultzama, Basaburu Nagusia, Imotz, Atetz eta Anueko hizkerak aztertu ditu Orreaga Ibarak. Eta azterketa horretan oinarriturik, hain zuzen, Mitxelenaren proposamen bera egiten digu (Ibarra 1996), goi-nafarrera ekialdekoa/mendebaldekoa alegia. Honen arabera, honako sailkapena egiten du:

Goi-nafarrera ekialdekoa	Goi-nafarrera mendebaldekoa
<ul style="list-style-type: none"> – Orain arte hegoaldeko goi-nafarrera izan dena. – Baztan. – Ultzama, Anue, Atetz. – Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka. 	<ul style="list-style-type: none"> – Arakil. – Basaburu Nagusia eta Imotz. – Basaburu Ttikia. – Araitz.

Hortaz, Bortzerrietako hizkerak Sunbillarekin nahiz Malerrekarekin batera sailkatzen ditu berak deitutako goi-nafarrera ekialdeko horretan⁸.

XIX. mendearen hondarrean eta XX. mendearen hasieran, Resurrección María de Azkue nabarmendu zen euskal dialektologian (eta euskalaritzan, oro har). Gehienez, Bonapartek egin zuen sailkapenari kasu egin zion, goi-nafarrerari dagokionez, behinik behin. Nabarmentzekoa da Bonaparteren gerotziko dialektologialari nagusiek Berako hizkera hartu dutela Bortzerrietako ordezkarietat (Azkuek, Irizarrek...). Berebat, Printzearen *el subdialecto de Cinco Villas* delakoaren izenpean inguruko eskualde batzuk ere sartu izan dira oraintsu arte: Bortzerriez gain, Sunbilla, Malerreka, Basaburu Ttikia, Bertizarana eta Oronoz-Mugairi.

Rosa Miren Pagolak bere *Euskal fonetika Nafarroan* doktorego-tesian gauzatu zuen azterketa zehatzaren ondorioetan zenbait isoglosa nagusiren berri ematen digu, gure eskualdeari dagokion Bonaparteren sailkapena ez dela hagitz egokia erranez, eta honek azterketa sakona behar duela azpimarratuz (1992: 285):

...Etxalar ere, Bortzerrietakoa izanik, Iparraldearekin mugan dagoenez, giza-harremanak ditu harekin eta hori zerbait islatzen da hizketan

⁸ Aitzitik, erran beharra dugu bere proposamenak ere ez gaituela arruntean asebetetzen. Izan ere, Bonaparterena ez bazen arras zehatza, Bortzerriak geolinguistikoki goi-nafarreraren ekialdean kokatzea ere ez zaigu sobera zehatza iduritzen. Edozein kasutan ere, eta Ibarak erraten duenez, afera ez da samurra eta honako saiakera ausartak behar ditugu, euskal dialektologian aitzinera eginen badugu. cf. Camino (1997: 212).

ere⁹. [...] Bonapartek Bortzerrietako azpi-euskalki bezala sailkatzen zuenak berrikusketa behar du: Ituren eta Sunbillak badituzte analogiak Arantza eta Etxalarrekin, baina desberdintasun garrantzitsuak ere bai. Sunbillak Bortzerrietarantz jotzen du; Donamariak, berriz, Basaburu Handira orokorki Bertizarana eta Maldaerrekako hizketekin afinitate handiagoa badu ere. [...] Eratsun zeharo kanpora atera behar da Bonaparteren sailkapenetik, Basaburu Handiko eta Aldazko hizkeretatik hurbilago baitago.

Ildo beretik, azkenaldi honetan egin diren deskribapen eta ikerketei esker (Camino, Ibarra, Olano, Pagola, Zubiri & Perurena...), Nafarroan barreneko muga dialektal nagusiak xehekiago eta zehatzago paratzeko aukera izan du Koldo Zuazo irakasleak¹⁰ (1998b: 7):

Hizkuntza eremu nagusi bi ageri dira gaurregun Nafarroan. Bortzerriak, Malerreka eta bereziki, Baztan, Ultzama Atetz lerroan abiatu eta Aezkoaraino hedatzen dena bata, eta Basaburu biak (Goizueta eta Beintza-Labaien izan ezik), Imotz (Muskitz izan ezik), Larraun eta Araitz hartzen dituen besteak.

Dena den, Bortzerriak eta Malerrekak batzuetan bat egiten dute erdialdeko hizkerekin. Beraz, erdialdean dagoen ezaugarri jakin baten isoglosa Bortzerrietaraino edo inguru horretaraino iritsiko da, baina ez Baztanera ezta Lapurdira ere (errate baterako, *ia>iya* epentesia). Zuazok ere gauza bera erraten digu (1998b: 9):

...Bortzerriak, Malerreka eta Sakanako hizkerak erdialdeko eremuarekin egiten dute bat inoiz.

Berrikitan, Iñaki Caminok (2003) eta Koldo Zuazok (2003) lan bana argitaratu dute. Bi lanotan, azkenaldian egindako hainbat azterketa eta ikerketa lagun, ikuspegi berria eskaintzen da Nafarroako mintzoez. Biak ados daude nahiz eta bakoitzak bere bidea egin duen erratean euskara nafarrak bertze euskalkien ondoan bereizgarri guti dituela, aski erdialdekoa den heinean, bere nortasuna baldin badu ere. Izan ere, erdiguneko hizkeretan hizkuntza ezaugarri eksklusiboak izateko aukera ez baita ertzetako hizkeretakoa bezainbertzekoa. Eta euskararen mapari erreparatuz gero, Bortzerriak aski erdialdean gelditzen direla ohartuko gara. Beraz, hau gogoan hartu beharrekoa dugu, ez bairik gabe.

Caminok dio, hego-nafarreraren egitura aztertzearekin, hego-nafarrera nafarreraren azpieuskalkia baizik ez dela (xehetasunetarako ikus Camino 2003).

Azkenik, Zuazok (2003: 97-113) egungo euskara nafarraren barrenean hiru azpieuskalki ikusten ditu: *sartalde*, *erdigunea* eta *sortalde*. *Sartalde*an bi multzo: *ipar-sartalde* (Bortzerriak, Malerreka eta Bertizarana) eta *hego-sartalde* (Sakana). Honen arabera, batetik, zenbait ezaugarri nafar ez dira gure

⁹ Ipar Euskal Herriarekin ere muga egiten duen Beraz ez zaigu informaziorik ematen, tamalez; Pagolak Bortzerrietan Arantza eta Etxalar bakarrik hartu baitzituen. Nolanahi, fonetikoki Ipar Euskal Herriak hurbilago ikusten dugu guk Etxalar Bera baino: asimilazio bustiduraren afera, adibidez.

¹⁰ Dena den, horrek ez du inondik ere erran nahi dialektologialariaren lana akitua denik. Kontrako kasuan gaudela pentsatzen dugu guk, bukaera baino gehiago abiaburu egokia dela dialektologia egiteko, alegia: euskalkien mapa berri horretan ageri diren eremuak berretsi eta finkatu beharko dira eta horretarako lan franko egin beharra dugu oraindik ere.

eremura iritsi, eta bertzetik, Ipar Euskal Herriaren hurbiltasuna ere sumatzen da. Hiru azpieuskalkioz landara, nortasun handiko hiru hizkera ere ikusten ditu, hirurak tarteko-hizkeratzat jotzen dituelarik: Baztangoa, Aezkoakoa eta Burundakoa.

Honenbertzez, orain arte erran denari nahiz kokapen geografiakoari erreparatuz gero, Bortzerriak Nafarroako euskararen barrenean ditugu, Lapurdiko eta Gipuzkoako mintzoak horren urruti ez dituela.

BORTZERRIETAKO EUSKARAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Fonetika-fonologia

Euskal dialektologian, azentuera oraindik erabat zehaztu gabeko esparrua izanda ere, arrunt garrantzizkoa deritzogu gure alderdi honetan, zinez bereizgarria delako¹¹ nahiz honen *erruz* zenbait fenomeno fonetiko gertatzen direlako. Mitxelenak bere azentuari buruzko sailkapenean (1972), IV tipoaren barrenean kokatu zuen *Bidasoaldekoa* [+2].

Geroago, Hualdek argi gehiago eman du afera honen inguruan (1997: 110):

Euskal Herriko erdialdeko eskualde zabal batean aurkitzen dugun azentuera orokorra [+2] da; hau da, azentueraren kokagunea bigarren silaba da gehienetan. Azentuera hau gaurrengungo euskararen aurkitzen den orokorrena dela esan dezakegu. Arau hau Gipuzkoako alderdirik handienetan baita Nafarroako mendebaldean (Bidasoa haranean) eta Bizkaiko zenbait eskualdetan ere erabiltzen da. Euskara batuan gehien erabiltzen den azentuera mota honetakoa dela gainera dezakegu.

Beraz, Bortzerrietan [+2] azentuera mota nagusi dugu: *amá, attá, gizóna, itxéra, txokóltia, berátarra...* Haatik, badira hainbat hitz markatuak direnak, Hualdek salbuespen lexikalak deitzen dituenak: *léngusu, bigar(re)na, órma, pikua, kánpun...* Alabaina, horietako batzuk erregulartu egin dira azentua bigarren silabara mugituz: *música > musíka, fábrica > fabríka, médico > medíkua, árbol > arbóla...* Bertze alde, erroa silaba bakarrekkoa bada, azentua lehen silaban joaten da: *ókena* 'hauena', *ókeri* 'hauei', *ékena* 'haiena', *ékeri* 'haiei', *úrin* 'uretan', *óna...* Honek erakusten digu azentu unitatea erroa dela, azentu eremua erroa dela, alegia. Ildo beretik, flexiozko morfemek ez dute azenturik eramaten ahal.

Nafarroako (nahiz Euskal Herriko) azentu ereduen sailkapena egin duen bertze bat Iñaki Gaminde izan da. Dialektologialari bizkaitarrak hiru irizpide nagusiren arabera eratu du sailkapen hau (Gaminde 1998b: 26):

- Azentu bereizgarria bai edo ez.
- Azentua txertatzeko eremua hitzaren erroa edo talde fonologikoa.
- Azentua txertatzeko norabidea eta silaba.

¹¹ Bortzerrietan (nahiz malerrekar, basaburuar...) bati galdetuz gero zerk bereizten duen ondoko herriko hizkera beretik, anitzetan erantzuna hauxe izaten da *ek idu(r)i du solasin ari di(r)ela kantari*. Hor-taz, ongi prestatutako dialektologialariak haiek aise nabaritzen duten bereizketaren berri emanen balu, ahoskeraren edo prosodiaren araberrako banaketa dialektologiko interesgarria genuke. Halarik ere, hagitx zaila da zehaztea non hasten den azentuera bat eta non bertze bat.

Hiru irizpideok ezarrita, Gamindek honela sailkatzen ditu Bortzerrietako herriak, bertzeak bertze: **Arantza, Bera, Etxalar, Ituren, Labaien, Lesaka, Oitz, Sunbilla, Zugarramurdi**. Deigarriena da Zugarramurdi (eta Urdazubi ere bai pentsatu beharko dugu) multzo honetan sartzen duela batetik; eta bertzetik, Basaburu Ttikiko herri gehienak (Labaien izan ezik) bertze multzo batean sartzen dituela. Honen arabera, aipatu herriotan ez dago azentu bereizgarririk, eremua talde fonologikoa da eta +2 azentu mota dago.

Orain arte Bortzerrietako euskararen azentuaren inguruan honat ekarri ditugun berrien arabera, Bortzerrietako azentuak Malerrekakoarekin nahiz ondoko Gipuzkoarekin bat egiten duela erraten ahal dugu. Azentuerari gaizkiolarik, eredu honek muga egiten du azentu eredu bera duten Baztane-kin ekialdetik eta Lapurdiko herriekin iparraldetik (Gaminde 1998a: 24-25), eta Basaburu Ttikiarekin (Beintza-Labaien izan ezik) hego-mendebaldetik. Ondorioz, Bortzerrietako azentubidea erdialdekoztat jo genezake, kokapen geolinguistikoari dagokionez.

1. Azentuarekin estuki lotuta dago bokal atonoak galtzea: Bortzerrietako hizkeran hagitx ohikoak ditugu aferesiak eta sinkopak: *zan, man, kus(i), kar(ri), tor(ri), zautu, toz* ‘atoz’, *jito, men* ‘omen’, *te* ‘ote’ moduko aferesiak orokorrak dira herri guzietan. Hala ere, erran beharra dugu aferesirik gabeko formak ere maiz aditzen direla, Arantzan izan ezik. Izan ere, herri honetan aferesiaren indarra aise handiagoa da. Dena den, aferesiak euskara nafarraren ezaugarritzat hartzen ohi direla eta, erran nahi dugu Bortzerrietako (eta Malerrekako) aferesien maila ez dela Baztanen (Esteribarren, Erroibarren...) dagoena, adibidez. Izan ere, *baki, mazte, turri*, bezalakoak arrotzak dira gurean, baita Arantzan ere. Bortzerrietan beti honela aurkituko ditugu: *ebaki, emazte* eta *it(t)urri*. Areago, diakroniara jotzen badugu, Baztango dotrinetan aferesia noiznahi ageri den bitartean (*kusi, man, zautu...*), Bortzerrietako testuetan ez dugu alerik harrapatu, ez eta Bertizaranako testuetan ere. Baztanen duela mende eta erdi bat ohikoa zena (hura idatziz ere adierazten baitzen) Bortzerrietako euskal agiritan ezezaguna zen. Hortaz, Nafarroan barreneko aferesiaren maiztasuna zein den eta nondik heldu den jakiten laguntzen digu honek.

Sinkopen aldetik, berriz, hagitzez azkarragoak dira Bortzerrietakoak Baztangoak baino; eta gainera, Bortzerrietako testu zaharretan bai agertzen direla (Berako dotrinakoak): *entertu, vorontia, alletu, certic, garizma, cerubtan...* Gaur egunean ere gisa honetako sinkopak arrunt hedatuak dira Bortzerrietan barrena: *gainko, bazterko, dutelkoz, eskoltik, garraitzeko, zarna, gaztanbra, arizte*, ‘ari zarete’, *zte* ‘dituzte’... baita zenbait mailegu berritan ere: *zepildu, serbilta, fabriktik...* Sinkopen mailak Arantza¹² bereizten du arruntean bertze lau herrietatik. Afera hau hain da ezaguna bortzerrietarren artean, ezen bertako edozeinek minutu bat(zu)ekin aski du solasean ari dena arantzarra dela jakiteko. Zalantzarik gabe, kontu honek sendotzen du Arantzako euskararen nortasuna bertze herrien aitzinean. Baina, ikus ditzagun

¹² Erran beharra dugu Arantza ondoko Igantziko auzo batzuetan ere (Irisarrin, adibidez) antzera egiten dutela, bai eta Sunbillako auzo batzuetan ere bertze neurri apalxeago batean.

Arantzako euskara bereizgarri egiten duten arau eskusiboak: inesibo pluraleko *-ketan>ktan* (*anktan, berriktan*); aditz izenetako *-teko>-tko* (*yatkua, edatkoa*); *-tzeko>-tzko* (*yotzko, garraitzkuk*); partizipio inperfektiboa laguntzailearekin elkartzean sortzen direnak (*karsnu* ‘ekartzen du’, *kustnu* ‘ikusten du’, *torsna* ‘etortzen da’); Arantzan bakarrik sortzen diren kontsonante bikoitzak (*fabrikkua, atettik* ‘ateetatik’) modukoak. Gogoan hartzen badugu anitzetan erabiltzen diren errateak direla, ohartuko gara zergatik gertatzen den hain berezia. Sinkopen atala akitzeko, badakigu Bortzerrietan (Sunbillan eta Malerrekako toki batzuetan) silaba postonikoan herskari ezpainkariak irristari bilakatzen ahal direla: *akautu* ‘akabatu’, *eskautu* ‘eskapatu’, *arrautu* ‘harrapatu’, *irauzi* ‘irabazi’, *irautsi* ‘erakutsi’, *illaute* ‘hilabete’ eta *kalauza* ‘kalabaza’. Baita *eraun* ere ‘eraman’, baina oraingoan ez da herskaria, sudurkari ezpainkaria baizik.

2. Disimilazioak (*o+a>ua, e+a>ia*): gertakari hau arauzkoa dugu arruntetan *un(e)takua, Lesakakua, basua, otsua, yokua...* eta *itxia, emakumia, ittia* ‘egitea’, *otia, gaztia...* Batzuetan, sobera ez, mugatzailea erabat asimilatzen da: *itxeke, otsu, gazti, yabi...* Honetan Arantza ere nabarmen gelditzen da herri honetan puskan maizago gertatzen baita. Eta fenomeno bera dugu herri guzietan kontsonanteren bat gehitzean: *etxalarkuk, otsuk, kanpun, zokun, emakumik, yabik, itxin, barrenin...* Hala ere, Beran eta Etxalarren bietara sumatu dugu guk: *onduan-ondu, ondarrin-ondarrin, gaztiak-gaztik*; nahiz eta bigarrenak gailentzen (ari) diren. Hau ez da Bortzerrietan bakarrik gertatzen den zerbait, inguruko hizkera anitzetan gauza bera gertatzen baita (Malerreka, Bertizarana, Goizueta, Oiartzun...). Mugatzailearen erabateko asimilazioa ez da gertatzen, ordea, muga inguruko hizkera lapurtarretan eta Baztanen. Bai, ordea, Beskoitzen (Duhau 2003). Disimilazioei dagokienez, berriz, ondoko Saran eta Baztanen (Salaburu 1996: 20-21) badakigu *e+a>ia* ia sistematikoa dela, eta *o+a>ua* hautazkoa¹³. Bortzerrietako lekukotasunetan disimilazioak salbuespenik gabe ageri zaizkigu.
3. Hurbileko asimilazioaren aztarnak: *biyek, iruek, lauek, guziyek, dire, nitzeke, litzeke, giñeke, lireke*. Adibide bakanduak ditugu, bertzerik ez. Baztanen (eta Nafarroako bertze leku batzuetan ere) hagitz indartsua da gertakari hau. Ez, ordea, Lapurdin eta Oiartzunen¹⁴. Malerrekan eta Bertizaranan Bortzerrietan dagoen antzeko egoera aurkitu dugu guk.
4. *i+a>iya* epentesia: *mendiya, ardiyak, oliyo, zerriya, ariya, baliyo...* Epentesia honelako kasuetan dugu Gaminderen arabera (1996: 46):

Txertaketa erregela hitzaren azentuak baldintzatua da, hots, /i/ bokala azentuduna izaki, /y/ txertatzen da, ez bestela.

¹³ Dena den, Baztan guzian ez bide da berdin gertatzen: Elizondo aldetik hegoaldera *ia* nagusia da, ez horrenbertze *ua*.

¹⁴ Hemen, eta Donostia bitarteko herri guzietan, *biyek* forma dago.

Hala ere, guk eskuratu ditugun datuetan nahiz solas bizian bertze hauek ere aurkitu ditugu: *ittúrriya*, *ipúrdiya*, *bersólariya*, *izúgarriya*, *ikáragarriya* e.a. Edonola delarik ere, iduri du /il hori azentuduna de-
nean sistematikoki egiten dela; hau da, beti erraten da *egiya* nahiz *ogi-
ya*, baina beti ez dugu *bazkariya* adituko, *bazkaria* ere aditzen ahal
dugularik. Bertze alde, Pagolak bere lanean (1992: 140-142) Etxala-
rrerako dakarren *biyotz* horrekin ere ez gaude arrunt konforme, epen-
tesirik gabeko *biotz* baita guk antzeman dugun bakarra. Ezaugarri
hau gibelka joaki bide da, gazteek zaharrek baino gutiagotan erabil-
tzen baitute. Epentesiaren gertakaria bizkorrago dago mendebalde-
ra ekialdera baino: Oiartzun, Lezo, Pasaia... Baztanen eta Saran¹⁵, be-
rriz, honen arrastorik ere ez dugu. Berebat, Sunbillatik beheiti ere in-
darra galtzen hasten da. Epentesia duen absolutiboari inesiboa erans-
ten zaionean, bi emaitza kausitu ditugu: Beran eta Etxalarren *mendi-
yan*, *erriyan* modukoak gailen diren bitartean, Lesakan, Igantzin,
Arantzan nahiz Sunbillan *mendiyin*, *erriyin* modukoak nagusi ditugu.
Bidasoaren alde bakoitzean emaitza bat ageri zaigu. *-yin*¹⁶ erakoak -
berriagoak - Oiartzunen (Fraile, A & Fraile, I. 1996: 43). *-yan* erako-
ak, berriz, Aranon (Zubiri & Perurena 1998: 75), Hondarribian, Iru-
nen ere... nagusitzen dira.

5. Hasierako *e->i-* asimilazio bokalikoa: hurbileko *-u-* horrek eraginda-
ko asimilazioak dira *iduki*, *iruzkiliguzki*. Baztan-Bidasoan ez ezik, La-
purdin eta Gipuzkoako Donostia bitarteko hizkeretan ere ezaguna da
(Agirretxe & Lersundi & Olaetxea 2000: 38-41; Camino 2000b: 68).
Multzotz honetan aitzinekoen analogiaz sortutako bertze adibide ba-
tzuk ere sailka genitzake: *irauntzi* 'erantzi', *irautsi* 'erakutsi' eta *izautu*
'ezagutu'.
6. Hitz bukaeran *-u>-o* eta *-i>-e* irekidurak: Bortzerrietan ez da Goizue-
tan (Zubiri & Perurena 1998: 32) bezain azkar gertatzen, ez eta Ma-
llerrekan¹⁷ bezain bizkor ere, baina zenbaitetan ageri da: *merkato*, *kato*,
diro, *xago*, *muso*, batetik, eta *afare*, *bazkare*, *autsike* (*autsiki* nagusi).
Dena den, arestian aipatu adibide guziek ez ote duten jatorri ezberdi-
na gaude gu. Bortzerritarren gogoan *astua> asto* gertatzen den bezala,
baliteke (batzuetan) berranalisis suertatzea: *merkatua> merkato*, *ka-
tua> kato*, *dirua> diro*... Honetaz landara, iduri du epentesiak eragi-
na izaten duela irekidura hauetan. Izan ere, epentesia duten adibide-
etan anitzetan biak (irekia eta ireki gabea) erabiltzen dira: *zaldiyal/zal-
deya*, *aundiyal/aundeya*, *eztiyal/ezteya*... Erran beharra dugu jatorrizkoa
- ireki gabea - gehiagotan erabiltzen dela.

¹⁵ Bai, ordea, Berarekin muga egiten duten Urruñan eta Biriatur nahiz Hendaian, Azkainen eta Donibane Lohizunen (Irizar 1997: 258-259).

¹⁶ Doneztebe inguruan zein Bertizaranan ere gisa honetakoak gailentzen dira, epentesia suertatzen delarik. Izan ere, hemengo epentesia anitzez ahulagoa eta irregularragoa da.

¹⁷ Bereziki, Zubietan. Zer erranik ez, Saldiasen, Eratsunen, Ezkurran, Leitzan. Pagolaren errane-
tan (1992: 108) Larraunen, Leitzan, Malda-Errekan eta bertze leku batzuetan *u> o* bihurtzeko biska handia dago.

7. o>u sudurkari aitzinetik: *unek, unekin, unentzat, unenbertze, unela, untan, unat...* Dena den, ez da hagitz emankorra, eta gainera, *onek/onat* bezalakoak ere aditzen dira. *u-* duten formak Ipar Euskal Herrian ez ezik, Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen... ere baliatzen dira. Auzi honi buruz Patxi Iñigok hauxe zioen bere artikuluan, Beran ospatu ziren *Euskal Besten mendeurrena* zela eta (Iñigo 1980: 43):

HAU=HUNÉK edo HONÉK bihurtzen da. Nork ordaindu du ardoa? galdetzen badugu, Arantzan, Beran eta Etxalarren: “HUNEK ordaindu du” erantzunen digute. Igantzin: “HONÉK ordaindu du”. Lesakan: “HONÉK ordaindu du” edo “HUNÉK ordaindu du”.

Diakroniara joz gero, Berako nahiz Etxalarko testuetan *u-* ikusiko dugu, eta Lesakako idazkietan, aldiz, *o-*. Zoritzarrez, ez dugu Arantzako edota Igantziko testurik ezagutzen. Bertze alde batetik, Lapurdin eta Baztanen aditzen diren *ungi, untzi* Etxalarren bakarrik jaso ditugu guk bertze lau herrietan aditzen diren *ongi, ontzi* formekin batean. Hortaz, Etxalar ondoan dituen Saratik eta Baztandik hurbilago ageri zaigu. Dena den, Etxalar urruti samar gelditzen da Luzaidetik. Izan ere, Luzaiden gertakari hau ia arras sistematizatzen da, Ipar Euskal Herrian bezala (Salaberri 2000: 230): *undar, uñez, ungarria, uñazia...* gurean *ondar, oñaz/oñez, ongarri* (gehiago *gorotza*), *oñazia...*

8. u erdibokalaren kontsonantizazioa: Bortzerrietan, Euskal Herriko bazter anitzetan bezala, *u* bokala diptongoaren bigarren osagai delarik, bertze bokal batekin elkartzearekin kontsonante bihurtzen da: (*au+a>aba*) *gaba, gabero, gabardi, aba* ‘ahoa’, *kristaba, sakristaba, labak* ‘laurak’... baina gero *goizko lautan* erraten da, eta ez *labetan*; (*eu+e>ebe*) *zeben* ‘zeuen’, *eben* ‘euren’¹⁸. Kontsonantizazioa Malerrekan, Bertizaranan, Baztango Basaburuan¹⁹ eta Gipuzkoan ere gertatzen da, bai eta Esteribar-Erroibarren ere (Ibarra 2000: 56). Baztango gainerako hiru kuarteletan, Zugarramurdin eta Lapurdin ez.
9. Monoptongazioak: batzuk arauz betetzen dira *ie, ia>i, ue>u* erreminta, *azinda, ttikina, aundina, ganbitu, abitu*²⁰, *Zubita, Goizuta, guzitan...* Honakoak Malerrekan, Bertizaranan nahiz Basaburu Tikian baliatzen dira. Monoptongazio hauek Bortzerrietan goranzko diptongorik ez egotearekin loturik dago, eta hauek saihesteko fenomeno horretara jotzen da. Baztanen, Ultzaman eta Lapurdin, ordea, goranzko diptongoak onartzen dira, eta ondorioz, ez dago honelakorik.
10. eu>u hitz hasieran: *uliya, uriya, uskara, uskaldun, Ugenio* ‘Eugenio’. Honen hedadura zabala da: Baztan-Bidasoa (Baztanen *eskuara*), Esteribar-Erroibar (Ibarra 2000: 58), Lapurdi... Mendebaldera, aldiz, ez dugu aurkituko: ez Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 38) ezta Gipuzkoan ere.

¹⁸ Hondarreko bi adibideok Bortzerrietako testuetan ere jaso ditugu.

¹⁹ EHHAKo Anizko grabazioetan *gaba, gabardi, labak, labetanogei* eta *eskolaba* ‘elizmutil’ etsenpluak bederen ageri dira. Lekaroz eta Erratzuko grabazioetan, berriz, *gaua, gauerdi* bezalakoak ditugu.

²⁰ Diakronian (Beran eta Lesakan dokumentatua) *abiyatu*.

11. Erdal <-oi/-on>: mailegu zaharretan *-oi* bukaera dugu *arratoi, arrazoi, sasoi*. Mailegu berriagoetan, aldiz, bi bukaerak aurkitzen ditugu, inguruko Nafarroako hizkera gehienetatik urruntzen delarik, hizkera hauetan *-on* bukaera nagusitzen baita²¹. Erdoziak Sakana erdialderako dakartzan adibide batzuk ekarriko ditugu honat Bortzerrietako emaitzekin erkatzeko asmoz (Erdozia 2001: 84-85): *jabona, balona, frontona, kamiona, montona, marrona, melona, kañona, leona, sermونا, pantalona* eta guk Bortzerrietan grabatu nahiz bildu ditugunak: *frontoya/frontona, garrafoya/garraфона, marroya/marrona, kañoya/kañona, ormigoya/ormigona* bikoteak; batetik, *balona, kamiona* nagusitzen dira eta *kordiona* aukera bakarra dugu; bertzetik *balkoya, bastoya, botoya, eskalap(r)oya, esproya, kapoya, kartoya, koltxoya, limoya, meloya, patroya, pregoya, sermoya* eta (*ʔ*)*xagoya/zaboya* nagusi ditugu. Honenbertzez, Gipuzkoan beti *-oi*, Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 39) nahiz Leitzan²² (Olano 1998: 81-82) *-oi* nagusi *abiona, kamiona, kordiona* gisakoak izan ezik; Bortzerrietan *-oi* gehiago erabiltzen da, batez ere adin batetik goitikoan artean, eta Nafarroako gainerako hizkeretan *-on* gailentzen da.
12. Erdal <-ción/-sión/-gión/-tión>-one nagusi: aitzineko puntuan ez bezala, Bortzerrietako euskarak afera honetan inguruko hizkera nafarrekin nahiz Ipar Euskal Herrikoekin bat egiten du, erdialdekoetatik aldentuz. Izan ere, *-one* da bukaera nagusia, ez bakarra: *diputazione, televisione, religione, dibisione, fundizione, esplikazione, zibilizazione, nazione, esagerazione...* bezalako aukerak nagusi ditugu; *estazione/estazio, jubilationel/jubilazio, satisfazione/satisfazio, obligazione/obli(ga)zio, passione/pasio, diputazione/diputzio,...* bezalako pareak; *konfesio, gonbe(r)sio, maldizio...* bezalako aukerak nagusi.
13. Metatesiak: hauetako batzuk aditz nagusia eta edun orainaldiko adizki laguntzaileak elkartzearen ondorioz gertatzen dira *eskatze unte* (<**eskatzen ute*<*eskatzen dute*), *eitten unte, mattein zut* (<**matten izut*<*ematen dizut*)... Metatesi honen hedaduraz den bezainbatean, badakigu (Camino 1997: 228, 362) goi-nafarreraz aski arruntak direla, aezkeraz inoizka erabiltzen direla eta behe-nafarreraz ez direla arrotzak. Orobat, Hondarribian ere ezagunak dira (Irizar 1992: 368-369). Bortzerrietan zenbaitetan urrats bat gehiago egiten da: *eitten unte*>*eitten te* (monop-tongazioa, eu>e). Honako metatesiak diakronian ageri dira Bortzerrietan eta Bertizaranan. Bertze alde batetik, *manteinttu, enteinttu, konpreinttu, ofeinttu, deteinttu...* moduko metatesiak ere baditugu, bidena-bar, Berako dotrinan ere azaltzen direnak. Malerrekan, Bertizaranan eta Goizuetan erabiltzen direla badakigu, ez ordea, Baztanen edo Ipar Euskal Herrian. Honat ekarki dugu Goizuetako euskarari buruzko azalpena (Zubiri & Perurena 1998: 49):

Beste aldetik, -nd multzoa dugu. Normalean mantentzen bada ere (yende [Ar, jende], ondotik, denda...) honako adibide hauetan jokaera be-

²¹ Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen *-on* bukaera da aukera bakarra.

²² *Balkobe, arrazobe, panparrobe* moduko forma leitzarrak ez ditugu aipatu, hots, *-obe* bukaera, honetan *-oi vs. -on* lehiatz ari baikara.

rezia izan du: konprenditu > *konprenitu > konpreinttu, entenditu > *entenuitu > enteinttu, errenditu > *errenitu > erreinttu e.a. Adibide horietan honako hau izan da bilakaera: -ndi>-ni>-in.

14. Herskari ahostunak/ahoskabeak, hitz hasieran: Orreaga Ibarrek erraten digu (1995: 196-197) berak aztertu dituen hizkerak elkarrekin alderatzen ari delarik, Ultzaman, Anuen eta Atetzen ahostuna maizago agertzen dela, eta Imotzen nahiz Basaburuan, aldiz, ahoskabea. Guk Bortzerrietan ere ahostuna gailentzen dela sumatu dugu, Nafarroako ekialderagoko hizkerekin bat eginez eta mendebaldekoetatik urrunduz. Arestian errandakoa frogatzeko, Goizuetako (Zubiri & Perurena 1998: 43), Basaburuko eta Ultzamako zenbait aldaera Bortzerrietakoen aldean paratuko ditugu:

Goizueta-Arano	Basaburua-Imotz	Ultzama-Anue-Atetz	Bortzerriak
<i>pao, pake, pozik, pixtu, pizkor</i>	<i>pago, pake, pozik</i>	<i>bago, bake, boxik</i>	<i>bago, bake, bozik, bixtu, bizkor</i>
<i>karrayo, karraxi, kolko</i>	<i>Korputza, koosti, kooldio</i>	<i>Gorputze, goroldio, gorostie</i>	<i>Gorputza, gorostiya Goroldiyo garrayo, garraxi, kolko</i>
	<i>Gostatu</i>	<i>gostatu, gonbidetu, gostunbratu</i>	<i>gostatu, gonbidatu, kostunbratu</i>

15. Bustidura ($i+t>tt$, $i(n)+d>i(n)y$): Bortzerrietan barreneko banaketa garbia suertatzen da kontu honetan, Etxalarren ez baitago maila honetako bustidura automatikorik: *guti, maiten, tugu, baitan, bildu, arraildu, agindu...* Gainontzeko herrietan, aldiz, bustidura hagitz azkarra da: *gutti, matten, matte zattut, ttugu, battan, bilyu, arrailyu, aginyu, zikinyu, minyu...* Beraz, Etxalar Ipar Euskal Herriko nahiz Baztango hizkeretatik hurbilago ageri zaigu. Ezberdintasun hau bortzerriarren artean hagitz ezaguna da, eta normalean gutiengoan gelditzen denari iseka egiten zaionez gero, bertze lau herrietakoek etxalartarrak zirikatzen dituzte honen kontura. Bortzerrietako testuetan ere banaketa bera aurkitu dugu. Aitzitik, Bortzerrietan, asimilazio bustidura ez da hiru inguru jakinetan gertatzen: deklinabideetan *menditik* (inoiz ez *mendittik*); atzizki eratorrietan *urite, zerritegi, erritar* (inoiz ez *uritte, zerrittegi, errittar*) eta aditz partizipioetan *yarrita* (inoiz ez *yarritta*). Berebat, mailegu berri samarrak diren *gabardina, gasolina, makina, mandarina, pegatina* busti gabe ahoskatzen dira Bortzerrietako herri guzietan. Bustidura adierazgarria ere maiz erabiltzen da, honako aldaketak suertatzen direlarik: $z>x$, *xoko, xakur, xerri, xapel, axal...*; $t>tt$ *mottel, ttentte, kattu, muttiko, migattua...*; $l>ll$ *llabur*²³, *pollit, polliki*.

²³ Su empleo en inicial con valor afectivo se da sobre todo en dialectos orientales (Mitzelena 1977: 195).

16. **j- zaharra, hitz hasieran*: *yayo, yautsi, yauntzi, yoan, yorratu, yan, yai, yiki, yosi, yokatu...* Baina, badira zenbait hitz [x] ebakera dutenak, liturgian erabiltzen direnak nahiz mailegu berri samarrak: *jaun, jangoiko, jeneral, juizio, juez*. Zenbait mailegu zaharretan ahoskera jatorrari atxiki zaio: *yornala, yuxtu-yuxtu, yunta, yuntatu, yuntun, yuzkatu*.
17. *Bokalen arteko dardarkari bakunaren galera*: dena den, ez du iduri maiztasun handikoa denik, ez bederen Gipuzkoan, Lapurdin eta Baztanen bezain ugaria. Batez ere *i* baten aitzinetik erortzen dela ohartu gara: *idui du, bero sargoya* ‘bero sargoria’, *eroi nitzen, ateitzen da* ‘ate-ratzen da’, *or dienak, itxe oitan* ‘etxe horietan’... Bertzenaz, ongi xamar gordetzen da: *itxera(t), gero, zaral/era, gara/gera...*
18. *-rtz- kontsonante taldea*: ezaguna denez, gisa honetakoak erabiltzen dira gurean *bortz, bertze, unenbertze, bertzela(z)/bertzenaz, ortzegun, ortzila* eta *ertze*. Gipuzkoan, Goizuetan eta Iturengo Aurtitz auzotik mendebaldera ez dago honelakorik. Halarik ere, *bortz* eta honen konposatuak nagusi badira ere, ez dira forma bakarrak, noizbehinka *bos* ere aditzen ahal delarik: *bos lagun tor dire, goizko bostan geldittu gara, bosgarna*.

IZENAREN MORFOLOGIA

1. *Berezko -aren ezegonkortasuna*: gertakari hau franko ezaguna da (Ibarra 2000: 126):

Analogia dela medio, edo beste bilakabide batzuen eraginez, hizkera askotan, bereziki Erdialdekoan eta Bortziri aldekoetan -a berezkoa galtzeko joera bizia agertzen da.

Hona hemen arestikoaren adibide batzuk: *egi bat, sil bat, tontakeri aundiya, justizi pixkot...* Hortaz, zenbait hitzetan eta *i* baten ondotik galtzen ohi da. Haatik, ezegonkortasuna bertze aldekoa ere izan liteke: *trena bat, kanpina batin, apeza unek, egunan batin, ondarra ori...* Gainera, gertakari hau ongi dokumentatua dugu Bortzerrietako testu guzietan (Berako dotrinako adibideak): *egunatan, mortalaraco, gauz onatan, yaquintasunaco duaya, beldurtasunaco duay*; (Zubigarai Etxalarko erretorearenak): *mandamentua unec, mundua unetan, obligacionia hoc, portamodua unec, motivua unetaz*. Lesakako idazkietan -a mugatzailea ia sistematikoki erakuslearekin batean joaten da beti: *eguna eq, arriya oq, anciya dagona ura* ‘ahantzia dagoen ura’, *decretuba estuba orren cumplimentuba...* Oiarzunen gauza bera gertatzen bide da (Fraile & Fraile 1996). Baztanen eta Saran ez omen da arrotza, nahiz arras erabilia ez izan. Saran honako hauek eman dizkigute guk han barrena egin ditugun grabazioetan *otela bat, apeza unek, dena lana zakarra zen, soro zelaya bat* eta *otomoila bat*. Urdazubin eta Zugarramurdin ere (Montoya 2002: 119-120) gauza bera gertatzen dela iduri du: *edozein andrea, gatzia guttikin, platera batean, kaparra bat, ogi irina pittat...*

2. Erakusleak: Bortzerrietan honako erakusleak ditugu *ok*, *oi(e)k* eta *ek*. Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen... ere honelakoak erabiltzen dira. Saran, Zugarramurdin..., aldiz, *auk*, *oi(e)k*, *ek*. Eta Oiartzunen (Fraile & Fraile 1996: 82) *ok*, *oik*, *aik*. Deklinaturik, berriz, ondoko itxura hartzen dute: *otan*, *otara*, *otik* (<*otatik*>), *otaz*, *okin*, *oken*, *okengana(t)*...; *etan*, *etara*, *etik*, *etaz*, *ekin*, *ekena*, *ekengana(t)*... Baztanen, ordea, lehen graduari dagozkionak deklinatzen direlarik, itxura analogikoagoa hartzen dute: *oketan*, *oketara*, *oketaik*, *oketaz*, *okekin*, *oken*, *okengana*...; hirugarren graduakoak Bortzerrietan bezalaxe deklinatzen dira²⁴ Baztanen.
3. Izenordain indartuak: *neunek/nionek*, *eunek/lionek*, *berak*, *geunek/gionek*, *zeunek/zionek*, *zeurek/zioerek* eta *eurek* dira Bortzerrietan erabiltzen diren izenordain indartuak. Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan erabiltzen direnak, hain zuzen. Goizuetan batzuk aldatzen dira (Zubiri & Perurena 1998: 103) *neunek/neurrek*, *eurre*, *gerak/gerok*, *zerak/zerok*.
4. Nor/zein izenordainen sailean: zenbaitetan ez dago bereizketarik. Izan ere, Bidasoaren alde batera gelditzen diren Arantzan, Igantzin eta Lesakan batzuetan *zein* erabiltzen da *nor* adierazteko, baina ez da Gipuzkoan bezain sistematikoa. Honen froga da, adibidez, Lesakako etxe batean *zein da?* galdetuz hartu gaituztela. Beharbada, kontuan hartu beharko genuke Arantzarekin eta Lesakarekin muga egiten duen Goizuetan ez dela inolako bereizketarik egiten (Zubiri & Perurena 1998: 165). Beran eta Etxalarren, aldiz, ez zaigu iduritu bi galdetzailoek nahasi direnik.
5. *Bi/bida* eta *laurogei/lautanogei* zenbatzaileak: zenbatzaileen sailean isoglosa garrantzitsu batzuk markatzen ahal ditugu. Izan ere, Bortzerrietan *bi* (nagusiki) eta *bida* 'biga, bi' erabiltzen dira, eta *lautanogei*²⁵ modukoak. Mendebaldera nahiz Basaburua Nagusian *bi* eta *laurogei* erabiltzen dira, ekialdera; eta Lapurdin *bida* eta *lauetanogei* (Ibarra 1995: 331). *Bida* zenbatzaileari dagokionez, Bortzerrietatik Malerrekarra bada alde, Malerrekan nahiz Bertizaranan (hagitzez) gehiago erabiltzen baitute.
6. Ergatiboa: ez dira gertakari pasiboak eta aktiboak bereizten, ergatibo pluraleko atzizkian sinkretismoa suertatu delarik: *-ak* da marka bakarra. Bortzerrietako idazkietan ere ez da inoiz bereizten. Bai, ordea, Baztanen (Ornoz-Mugairi kanpo utzita), Zugarramurdin eta Saran. Bortzerriak, Malerreka eta Bertizarana erdialdeko hizkerekin bat eginda ageri dira.
7. Datiboa: sinkretismoa gailendu da arruntean, singularraren eta pluraren arteko bereizketa ez baita egiten egun. Testu gehienetan, berriz,

²⁴ Orreaga Ibarra (1995: 329) antzeko banaketa egiten du: Basaburuan *otan*, *otako*, *ota*, Ultzaman *oketan*, *oketako*, *oketara*.

²⁵ Patxi Iñigok ohartarazi gaituenez, Beran *larogei* gehiago aditzen da. Alde horretatik, Gipuzkoako hizkeren isuria izan liteke. Dena den, gure datuetan *lautanogei* maizago aurkitu dugu. Erran gabe joaki da adin batetik goitikoz ari garela.

ongi bereizten da (Etxalarko adibideak): *eguiazcoari, Jaungoicotasunari...* singularrean, *maisterrey, tuzteney...* pluralean. Gaur den egunean *-(e)ri* da atzizki bakarra. Aitzitik, batzuetan Hondarribian eta Irun (Sagartzazu 1994: 604-606) aldean ezagunagoa den *-akeri* agertzen da pluralerako: *launakeri man nion* 'lagunei eman nien', *gure semikeri ez zayote yeus ere falta* 'gure semeei ez zaie deus ere falta'. Gazteen artean ere aditzen da berrikuntza hau.

8. Edute genitiboa *-aren>an*: *attana, beyana, semin kotxia, la(g)unan alukariyak...* Kasu honetan ere sinkretismoa nagusitu da. Berebat, *-aken* atzizkia bakan batzuetan azaltzen ahal da, baina ez inondik ere Hondarribian edo Irunen bezainbat: *umiken jostailluk* 'umeen jostailuak', *alabakena* 'alabena', *bertzikena* bertzeena'. Bertze alde, hemen ez dago euskara nafar gehienez, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hizkera anitzetan erabiltzen den (*-aren>*) *-ain* atzizkirik.
9. Soziatiboa: Bortzerrietan *-kin* orokorra dago, Baztan-Bidasoa guzian bezala. Bertze aldetik, soziatiboak izenei zein aditzei lotuta denbora adierazten du, ekialdeko euskalkietan²⁶ bezala: *ortzegunakin zatten da* 'ortzegunetan izaten da', *laruntakin yuan tzen* 'larunbatean joan zen', *arat alletzekin deittu* 'hara ailegatzean deitu'... Aditzekin denbora adieraz gainera balio kontsekutiboa ere hartzen ahal du: *ni lanin aritzekin, banun diro pixkot* 'ni lanean aritzen nintzenez, banuen diru pixka bat', *bera nausi zattekin, itten al tzun nai zuna* 'bera nagusi zenez, egiten ahal zuen nahi zuena' e.a.
10. Instrumentala: aitzineko puntuan bezala, Baztan-Bidasoako hizkera guziek bat egiten dute honetan ere, eskualde osoan *-z* baliatzen baita, eta ez Nafarroako bertze toki batzuetan baliatzen den *-s* atzizkia. Jakina denez, Goizuetan, Gipuzkoan eta Lapurdin *-z* erabiltzen da.
11. Destinatiboa: *-tzat* atzizkia erabiltzen da, eta atzizki hau da, halaber, Bortzerrietako testu guzietan inolako salbuespenik gabe ageri zaiguna: *ebentzat, orrentzat, zakurrantzat, iretzat...* Gipuzkoan, Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 122), Lapurdi gehienez²⁷ *-tzat* erabiltzen da, eta Zugarramurdin *-tako* eta *-tzat* atzizkien arteko lehian, lehenbizikoa nagusi da²⁸. Nafarroako hizkera gehientsuenetan, berriz, *-tako*. Honen muga Sunbillan berean dago. Hortaz, Sunbillan, Malerrekana, Bertizaranan... *-tako* baliatzen da.
12. Prolatiboa: Euskaltzaindiak (1985: 447-450) bi balio bereizten ditu: xedea eta ustea. Xedea edo helburua adierazteko, Nafarroa gehienez²⁹ dagoen *-tako* ezaguna da gurean: *ura ortako artu gunun* (Arantza), *ejenplutko man tziun* (Arantza), *materialtako artu zten* (Bera). Alabaina, ustea adierazteko, 'sorgintako artu z(u)ten' bezalakoak ez dira baxterre ohikoak, bai, ordea, *sorgiñaz artu zuten* (Bera), *ergelaz yotzen nau-*

²⁶ Bizkaian ere ezaguna da *eunokas* 'egun hauekin'.

²⁷ Beskoitzen ere hala bide da, deklinabidearen gaineko atalean ageri denez (Duhau 2003: 285).

²⁸ Estibalitz Montoyak dioenez (2002: 93): destinatiboan, bai *norendako* bai *norentzat* erabiltzen dira, baina *norendako* askoz arruntagoa da.

²⁹ Ikus Camino 1997: 387; Ibarra 1995: 388; Ibarra 2000: 106, eta Olano 1998: 136.

zu (Bera). Hondarrekoak Sunbillan, Malerrekan eta Leitzan (Olano 1998: 136-139) ere ezagunak dira. Aranon eta Goizuetan, ordea, (Zubiri & Perurena 1998: 75, 122) *-tzat* eta *-tako* erabiltzen dira. Saran (eta Lapurdin) *-tzat* indarrean dago. Gisa berean, *-tzat* ageri zaigu Bortzerrietako eskuizkribuetan (Lesaka) ere: *badugu Jangoicua gure attatzat aren Semia, Errentoretzat, aren sacramentubaq gure arimen enfermdadien erremedyotzat, Cerutiq yautsitzen oguiya gure yanaritzat, eta Eliza Catolicuaren batzarrian Ama tierna eta cariñosa bat gure sa-beletzat....*

13. Inesiboa: bizidunen inesiboa *-ren battan* dugu. Ondotik emanen ditugun adibideak dotrinetakoak dira: *baitan* Etxalarren: (Etxalar) *aren baitan, gure baitan, jaunaren baitan...* (Lesaka) *aren battan, gure battan, dunan battan...* Ekialderagoko hizkeretan ere *noren baitan* ageri da. Hala ere, Bortzerrietan *zutan dut konfiantza, semi(a)n badut fedia* gisakoak gero eta gehiago erabiltzen dira. Goizuetan kasu honen erabilera murriztagoa da (Zubiri & Perurena 1998: 102):

Norengan kasuari dagokionez, arrunt gutxi erabiltzen denez, *neregan, iregan...* formen ordeztu gehienek *nerega(i)ñ, irega(i)ñ...* bezalakoak eman dizkigute, *gain* posposizioarekin eraikitako esapideak emanaz. Dena dela, forma hauen ondoan *nere batten, irelere batten*, etab. ditugu, baina azkeneko forma hauek “*nere batten pentsatu nun*” eta horrelako edo antzeko esamoldeetara murrizten dira.

Hondarribian inesiboa adierazteko *-gan* kasu marka erabiltzen da, Sagartzazuk adierazten digunez (1994: 606), *laja lan ori nere baitan, nere baitan esaten nuen* bezalako adibideak ematen baditu ere. Bere hitzetan, hagitx murrizta da erabilera hau, eta xehekiago aztertu beharreko auzia. Honenbertzez, isoglosa honen muga Hondarribian nahiz Goizuetan barrena kokatzen ahal dugu.

14. Adlatiboa: kontu honetan Bortzerrietan barreneko banaketa arras garbia dugu, Beran eta Etxalarren *-rat, -ganat, -t(z)erat* daude aukeran³⁰, eta bertzeetan *-ra* da atzizki emankor bakarra. Dena den, *norat* kasuaren arrastoak bide diren hainbat forma fosilduta daude herri guztietan. Honi dagokionez, Bortzerrietako eta inguruko euskararen berezitasuna da hiru sail ezberdin baliatzen direla, Nafarroako bertze leku batzuetan bakarra edo bi erabiltzen diren bitartean:

unat/onat	unata/onata	unara/onara
orrat	orrata	orrara
arat	arata	arara

³⁰ Gure datuen arabera, maiz familia kontua izaten da. Izan ere, herri nahiz barride berekoek ezberdin jokatzeko dute, batzuek gorde dute, eta bertze batzuek ez. Erran dezagun, bidenabar, Berako eta Etxalarko testu batzuetan bakarrik agertzen dela.

15. Ablatiboa: distributibo gisa baliatzen ahal da *bi illautetik yuaten naiz medikungana, bi astetikan, amar eguntikan...* Erabilera hau mende-baldera ez da ezaguna; bai, ordea, iparralderago nahiz ekialderago (N'Diaye 1970: 79; Ibarra 2000: 115).
16. Bizidunen ablatiboa: Bortzerrietako idatzietan ageri den atzizki bakarra *-ganik* dugu, Ipar Euskal Herriko hizkeretan erabiltzen dena³¹: (Bera) *non ganic, Jaunen ganic*; (Etxalar) *Mariaganic, Virginiaganic*; (Lesaka) *gure ganiq, nere ganiq*. Gaur den egunean, ordea, egoera konplexu samarra dago. Izan ere, zaharrek bakarrik bereizten dituzte bizidunak eta bizigabeak, ablatiboari dagokionez, *medikutik eldu naiz* modukoak gero eta gehiago aditzen direlarik, alde batetik; eta bertze aldetik, bizidunen ablatiboa erabiltzen dutenen artean *-ganik* eta *-gandik* atzizkiak aditzen ahal dira. Gure datuen arabera, Beran eta Etxalarren biak erabiltzen diren bitartean, bertze hiruetan *-gandik* eman digute. Berebat, Patxi Iñigok honako hauek bildu zituen (1980: 46) Beran *-ganik* eta *-gandik*, Etxalarren *-genik* eta *-gandik* eta Arantzan, Igantzin eta Lesakan *-gandik*. Hortaz, iduri du Bidasoa ibaiak muga lana egiten duela berriz ere. Malerrekan, Bertizaranan eta Baztan gehienez ere *-gandik* erabiltzen da, bizidunen ablatiboa erabiltzekotan, Baztangoizan izan ezik.
17. *-ik>ikan* partitiboan, ablatiboan, motibatiboan eta modu-denborazko perpausetan: gurean aukeran dugun ezaugarri honek indar handia du *sosikan, bakarrikan, ortikan, ondotikan, orregatikan, ittiagatikan, eldu zelikan, nai zulikan...* Berrikuntza hau erdialdean aurkitzen dugu batez ere: Gipuzkoa, Basaburu Tikia, Malerreka, Bertizarana... Dena den, Baztanen hauek ere eman dizkigute: *oñiken, soriken* (<*segurik*), *oxtiken*. Eta Aezkoan ere bada *-rikan* (Camino 1997: 390) moduzkoetan. Zernahi gisaz, pleonasmonek ez duela hedadura bera nabarmendu beharra da, moduzko perpausetan Sakanatik Garazirainoko eremua hartzen duelarik. Zugarramurdin eta Urdazubin (Montoya 2002: 93) entzuten ahal dira berrikuntza hau duten egiturak, bazterreko formak izanda ere. Mugaz bertze aldean ere ez da batere arrunta, nahiz eta Argaiñaratzek eta Etxeberri Sarakoak aski maiz erabiltzen zuten. Saran eta Senperen, geronek behinik behin, ez dugu alerik jaso, eta galdeka hasi garelarik, beti erran digute hori ez dela bertakoa. Dena den, *Senpereko kantu xaharrak* (ikus bibliografian) izeneko bilduman, pleonasmota hau frankotan ageri da, eta ez (beti) neurriaren kontuagatik. Bukatzeko, Henri Duhauk Beskoitzeko euskaran honako adibideak dakartza (2003: 304) *etxean direlarik [etxin dielaaik], etxean direlarikan [etxin dielaaik], hor delarikan [hor delaikan]*. Eremukako azterketari dagokionez, argitu beharreko afera dugu.
18. Adberbio eta bigarren mailako predikatuetan partitiboa edo mugagabea: mendebaldean eta erdialdean bezala, Bortzerrietan partitiboa edo mugagabea erabiltzen da honelako egituretan: *lasai-lasai dago, xi-xilikan zi(r)en, txintxo ibilli...* Baztanen, Zugarramurdin, Saran..., ordea,

³¹ Baztangoizan ere bai (N'Diaye 1970: 80) *noenganik dakizu berri au*. Dena den, Bizkaian antzina ere bazen. Beraz, *-ganik* zaharra dugu.

aitzinekoez gain absolutiboa ere baliatzen ahal da (N'Diaye 1970: 62): *mendi guziek tranki-trankilek zauden*. Ondoko Sunbillan eta Malerrekan Bortzerrietan bezalaxe egiten dute.

19. -koz eta -(e)lako atzizkiak: ekialdean *-ko* atzizkiak xedezko perpausetan edo *-(e)lako* erako kausazkoetan kontsonante txistukari bat bereganaturik eranskina hartzen ahal du. Donostiatik eskuin agertzen hasten da (Agirretxe & Lersundi & Olaetxea 2000: 167; Camino 2000b: 72). Gurean *-koz* eta *-(e)lako*z hagitz ohikoak dira. Ondoko Saran txistukaria afrikatua da: *-kots*, *-(e)lakots*. Baztanen, ordea, bietara sumatu dugu, frikaria eta afrikatua. Frikaria, Baztango Basaburuan eta Elizondotik hegoaldera dauden herrietan, eta afrikatua, Elizondo inguruan eta Baztangoizan. Azkenik, erran beharra dugu Berako dotrinan *-kots* ageri dela sistematikoki.
20. Ofizioa edo lana adierazten duen -ko atzizkia: ekialdeko euskalkietan arrunta da (Ibarra 1995: 412) *artzaingua, nekazalgua, sorgingo, alkategoan...* Bortzerrietan ere maiz aditzen da (*-go>-ko*): *artzainkun ibilli, alkatekun egon, soldadokua in, txoferkun...* Baina behin *-go* Etxalarren *neskatxa zen sorginguan ibiltzen zena* (Euskaltzaindia 1999: 101). *-go* honek ekialderago eramaki gaitu berriz ere Etxalarren kasuan, zeren eta hau da ekialderago nahiz iparralderago erabiltzen den aldaera. Erraterako, Luzaiden (Salaberri & Kamino 2001: 76): *artzaingo, apezgo, ahozko 'arozgo', xofergo*.
21. Garraioaren adiera duen -ketari atzizkia: Bortzerrietan (eta ekialderagoko nahiz iparralderagoko hizkeretan) maiz aski aditzen da, bereziki adin batetik goitikoan artean: *esneketariya, ogiketariya, ardoketariya, arraiketariya, egurketariya*. Pasaian ere ezaguna da *arraiketari* 'arrainketari' etsenplua bederen (Agirretxe & Lersundi & Olaetxea 2000: 177). Hortik eskuin maizago ageri da atzizki hau.
22. bera aposizio indargarria: *berean, beretik* eta *berera* dira ekialdeko euskalkietan erabiltzen direnak, mendebaldekoetan *bertan, bertatik* eta *bertara* erabiltzen diren bitartean. Bortzerrietako euskarak ekialdekoekin bat egiten du: *gaur beri(a)n, ortan beri(a)n, emendik(an) bertatik(an), errira(t) berera(t)...*
23. -xko atzizkia: *ongixko, urru(t)tixko, beranduxko, soberaxko, erixko, lodixko, luzexko...* 'aski' edo 'nahiko' adiera nahiz 'pixka bat' hartzen dute hauek. Atzizki hau Nafarroan eta ekialdean dago (Duhau 2003: 305-306; Salaberri & Kamino 2001: 82).

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRETXE, J.L. & LERSUNDI, M. & OLAETXEA, O., 2000, *Pasaiako hizkera*, Pasaiako Udala, Pasaia.
- AGIRRETXE, J.L. & ESNAOLA, I., 2000, *Lezoko euskararen azterketa*, Lezoko Unibertsitateko Udala, Lezo.
- BONAPARTE, L.L., 1863, *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

- CAMINO, I. (arg.), 1998, *Nafarroako hizkerak, Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo.
- CAMINO, I., 2000a, "Goñerriko hizkera (II)", *ASJU*, 34:1, 137-196.
- CAMINO, I., 2000b, "Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko", in Zuazo, K. (arg.), *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 53-82.
- CAMINO, I., 2003, "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV*, 94, 427-468.
- DUHAU, H., 2003, *Hasian hasi, Beskoitzeko euskara, "Birdena" edo bigarren partea*, Akoka, Donibane-Lohizune.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko hizkera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA, 1985, *Euskal gramatika, Lehen urratsak-I*, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA, 1987, *Euskal gramatika, Lehen URRATSAK-II*, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas, Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*, Bilbo.
- FRAILE, I. eta FRAILE, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala.
- GAMINDE, I., 1985, "Nor-en ahalezko oraina, eta joan, ibili eta egon aditzen alokutiboak (Nafarroan)", *FLV*, 46, 215-263.
- GAMINDE, I., 1996, "Lesakako azentu eta intonazioaz", *FLV*, 71, 45-70.
- GAMINDE, I., 1998a, *Euskaldunen azentuak*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- GAMINDE, I., 1998b, "Nafarroako azentu erduen sailkapena", in Camino, I. (arg.), *Nafarroako hizkerak, Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo, 23-48.
- HUALDE, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak, ASJU-ren gehigarriak*, 42.zb, Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU, Donostia & Bilbo.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- IBARRA, O., 1996, "Bonaparteren sailkapena eztabaidatuz", *FLV*, 71, 71-86.
- IBARRA, O., 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- IÑIGO, P., 1980, "Bortzirietako erakusleez", *Euskera*, 12, 43-46.
- IRIZAR, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, 2 liburuki, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- IRIZAR, P., 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea.
- IRIZAR, P., 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea, 258-259 eta 551-614.
- MITXELENA, L., 1972, "A note on Old Labourdin Accentuation", *ASJU*, 6, 110-120.
- MITXELENA, L., 1976, "La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas", *RSEL*, 6.2, 309-326.
- MITXELENA, L., 1977, *Fonética Histórica Vasca* (2. arg.), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- MONTOYA, E., 2002, *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*, EHUko tesi argitaragabea.
- N'DIAYE, G., 1970, *Structure du dialecte basque de Maya*, Mouton, The Hague-Paris.
- OLANO, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- PAGOLA, R. M., 1992, *Euskal fonetika Nafarroan*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- SAGARTZAZU, T., 1994, "Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak", in Gomez, R. & Lakarra, J. A. (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJUren gehigarriak* 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 589-628.
- SALABERRI, P., 2000, "Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan", in Zuazo, K. (arg.), *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 223-262.
- SALABERRI, P. & CAMINO, I., 2001, "Hitz eratorriak Luzaideko hizkeran", *FLV*, 86, 67-86.
- SALABURU, P., 1996, "Baztango hizkeraz hitz pare bat", in Izeta, M., *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 15-22.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M., 1972, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- Senpereko kantu xaharrak*, 2001, *Oxtikenekoak*, Kultur Elkarte & Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- URKIXO, J., 1908-10, "Cartas escritas por el príncipe L.L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores", *RIEV*, 4, 233-297.
- ZUAZO, K., 1997, "Oiartzungo hizkeraren kokagunea", *FLV*, 76, 397-425.

- ZUAZO, K., 1998a, "Euskalkiak gaur", *FLV*, 78, 191-234.
- ZUAZO, K., 1998b, "Nafarroako euskal hizkerak", in Camino, I. (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo, 1-22.
- ZUAZO, K., (arg.), 2000, *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- ZUAZO, K., 2003, *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.
- ZUBIRI, J. J., eta PERURENA, P., 1998, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Bortzerrietako XVIII. eta XIX. mendeetako testuak

- IDOATE, C. eta VILLANUEVA, J. J., 1981, "Unas ordenanzas de Vera en vascuence", *FLV*, 37, 275-281.
- PAGOLA, R. M. et alii., 1995, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Iparraldeko Goi-Nafarrera* (2. liburukia), Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo, 471-512.
- SATRUSTEGI, J. M., 1987, *Euskal Testu Zaharrak I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 78-79 (Etxalar) eta 247-261 (Lesaka).
- SATRUSTEGI, J. M., 1997, "Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatuak", *FLV*, 74, 99-126.
- TREBIÑO, I., 2000, *Euskarazko testu zibilak administrazioan: 1855 eta 1856ko Etxalarko bando batzuk*, Eusko Jaurilaritza, HAAE-IVAP, Gasteiz, 415-420.
- * Manuel Zubigarai Etxalarko erretoreak idatzitako predikua. 1878-1917 (bertako erretore izan) bitartean idatzia. **Pello Apezetxeak** utzitako 14 orriko eskuizkribua.

LABURPENEA

Bortzerrietako euskararen gaineko ikerketa-lan baten lehenbiziko atala da artikulua hau. Lehen honetan, Bortzerrien inguruko zenbait datu aurkezten dira, bai eta aztertu beharreko eremuaren inguruko sarrera soziolinguistikoa egin ere. Datu hauen laguntzaz, Bortzerrietako dinamika sozio-espaziala ezagutu eta ezagutarazi nahi da. Ondotik, Bortzerrietako hizkerak orain arteko euskal dialektologian izan duten estatusaren berri laburra ematen da, Bonaparte Printzearen garaitik gaur egun arte. Hortik aitzinera, berriz, gure eremuko hizkuntza tasunek hartzen dute protagonismo osoa, Bortzerrietako euskararen ezaugarrien geografia hedaturaren berri zehatza izateko asmoz. Lehen honetan, fonetika-fonologiari eta izenaren morfologiari dagozkion ezaugarri nagusiak aurkezten ditugu.

RESUMEN

Este artículo es la primera parte de un trabajo de investigación realizado sobre el euskara de la comarca Bortzerriak-Cinco Villas. En este primer artículo, se presentan una serie de datos en torno a dicha comarca, así como una introducción sociolingüística de la zona. Con estos datos, se pretende dar a conocer la dinámica socio-espacial de las Cinco Villas. A continuación, ofrecemos una visión del estatus que han tenido hasta ahora las hablas de la zona a estudiar, desde el Príncipe Bonaparte hasta nuestros días. De ahí en adelante, las características lingüísticas de la comarca adquieren todo el protagonismo, con la intención de determinar con exactitud la extensión geográfica de los rasgos del euskara de las Cinco Villas. En esta primera parte, presentamos las principales características que corresponden a la fonética-fonología y a la morfología nominal.

RÉSUMÉ

Cet article est la première partie d'un travail de recherche sur le dialecte du basque des Bortzerriak-Cinq Villages. Dans un premier temps, certaines données sur les Bortzerriak sont présentées, ainsi qu'une introduction sociolin-

guistique au domaine étudié. A l'aide de ces données, nous voulons connaître et faire connaître la dynamique socio-spatiale des Bortzerriak. Une courte synthèse des différents statuts attribués aux dialectes des Bortzerriak au sein de la dialectologie basque vient ensuite, de l'époque du Prince Bonaparte jusqu'à nos jours. A partir de ce point, nous nous focalisons sur les traits linguistiques du domaine concerné, afin de rendre compte de l'extension géographique des caractéristiques du basque des Bortzerriak. Ainsi, nous pourrions mesurer l'identité linguistique des Bortzerriak. Nous décrivons dans cet article les principaux traits de la phonétique-phonologie et de la morphologie nominale.

ABSTRACT

This paper is the first part of a research work on the Basque of Bortzerriak-Five Villes. In this first approach, apart from presenting some data about Bortzerriak, a sociological introduction of the area to be investigated is offered. Making use of these data, it is possible to know the socio-spatial dynamic of Bortzerriak. Then, we proceed to briefly inform (from Prince Bonaparte's period onward (nowadays)) about the dialectal status of the speeches of Bortzerriak. Once we reach this point, the language features of our area become important in order to identify the exact geographical extension of the properties of Bortzerrian Basque. Thus, it is made possible to measure out the linguistic identity of Bortzerriak. In the first part we describe the main aspects of the phonetic-phonology and nominal morphology.